



**2011KO ABENDUAREN 16KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaikako abenduaren hamaseian, arratsaldeko ordubi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Insausti, Inazio Estensoro Eskisabel eta Andoitz Garmendia Zubeldia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2011ko azaroaren 11an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2011ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 30 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientearen dagoena, HIRUROGEI MILA LAUREHUN ETA HOGEITA ZORTZI EURO ETA BERROGEITA SEI ZENTIMO (60.428,47 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- 19 H.J.A. -LARREATEGI- GUNEAREN URBANIZAZIO PROIEKTUAREN HASIERAKO ONARPENA.-

19 Hirigintza Jarduera Areako Kontzertazio Bartzordeak, Jose Manuel Elizegi Sarobe arkitektoak idatzitako 19 H.J.A. -Larreategi- gunearen urbanizazio proiektua aurkeztu udal honetan bere onarpenerako.

Urbanizazio proiektu honen aurrean udal zerbitzu teknikoek beraien txostena egin dute. Txosten honetan, adierazten da, urbanizazio proiektu honetan hainbat aldaketa egin beharra dagoela, baina egin beharreko aldaketa hauek ez dutela proiektu guztia bertan behera uzterainoko izaera garrantzitsurik eta beraz hasierakoz onartu daitekela, nahiz eta behin betiko onarpenera eman aurretik ikusten zaizkion gabeziak konpondu egin beharko lirakeen.

Bestalde proiektua hirigintza batzordean informatua izan da.

Honen aurrean eta Hirigintza Batzorde Informatzailearen proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- 19 H.J.A. -Larreategi- gunearen urbanizazio proiektua, hasierakoz, baldintzekin onartzea.
- 2.- Urbanizazio proiektua 20 eguneko denboraldian jendaurreko erakustaldian jartzea.



3.- Behin betiko onarpena eman aurretik honako zuzenketak eginda aurkeztu beharko da urbanizazio proiektu hau:

Orokorrean

1.-Eremuaren goialdean lur-euspeneak edukiko duten garrantzia dela eta, euspenerako hartutako aukeren bideragarritasuna bermatuko duen azterketa geotekniko bat entregatzea beharrezkoa izango da.

2.- Aurrekontuak, BI eta GG-en %19aren portzentaia eduki beharko du, proposatutako %15aren ordez, baita aplikatu beharreko BEZa aipatu beharko du.

3.- Proiektuari neurketen banantzea erantsi beharko zaio.

Ur-hornidura sarea

4.- Kanpandegin proiektatzen den biribilguneetik gertu dauden bi ureztatze-ahok kentzea, eta Kanpandegitik gertuen dagoen gune berdean ureztatze-aho bat jartzea.

5.- Ur-horniduraren hargune orokorraren eta ura banatzeko balbulen kutxetaren artean kokatutako kutxetak, bere erregistrorako eta mantentze lanak egiteko, ebakidura handiagoa eduki behar du.

6.- Hidranteen kokapena aldatu egiten da, hauetako bat lorategiaren erdigunearen aldamenean kokatuz, eta beste bat a.30.2 lurzatiaren goialdean, dentsitate baxuko lurzatiaren eta blokearen artean kokatutako oinezkoen pasuan aurreikusitakoa eta a.20.2 lurzatiaren ipar-mendebaldean kokatutakoa kenduz.

7.- a.30.3 lurzatiaren aldamenean kokatutako ureztatze-ahoren kokapena aldatuk oda, a.30.3 eta a.30.2 lurzatiaren mugaraino igoz.

8.- Lurperatutako hidranteen modeloak aldatuko dira, IRUA etxeko Galerna CD hidranteak jarritz.

9.- Garajeen suteen aurkako babeserako sarearen hornidura-hargunearen hodian kokapena eta ezaugarriak zehaztuko dira.

10.- Polietilenoazko 2" (63 mm)-ko harguneak, plastikozko briden ordez letoizkoak eduki beharko dituzte, eta 10 atm-en ordez 16 atm edukiko dituzte.

11.- Banaketa sarearen gurutzatze guztietan ebakitze-balbulak jarriko dira, tarteak banantzeko eta ebakitze kasuetan ordezko zirkuituak gaitzeko.

Drainatze eta saneamendu sarea

12.- Hegoaldeko hegaleko euri-uren eta drainatze-uren ebakuaziorako hodian ebakidurak handituko dira, DN200-etik DN315-era.

13.-Kanpandegi eremuko 4 lurzati pribatuen euri-uren hodian hedadura eta kokapenak zehaztea.

14.- Kutxeten estalkiak 40T-ko indartuak izango dira errepide guztietan.

15.-Kutxeta guztiek Lazkaoko Udalaren enblema eramango dute, eta hauetako bat ere ez da betetzekoa izango.

Ur beltzen saneamendu sarea

16.-Ur beltzen saneamendu sarea zehaztea, baita honen isurketa puntuak ere.

Telefonia sarea



17.- Telefonía sarearen hargune puntua zehaztea, baita eremuaren hargunearen kostuak zenbatekotzea.

Argiteri publiko sarea

18.- Farolen modelo eta zehaztasunak zehaztu beharko dira, baita hauen banaketa, modu honetan, argiteriaren azterketa tekniko baten bidez, hiri-bide guztietan 10 eta 15 lux bi-tarteko batezbesteko argitasuna eta oinezko-bideetan eta goiko kalean 7,5 eta 10 lux bi-tarteko batezbesteko argitasuna bermatzeko.

19.- Koadro elektrikoaren kokapena zehaztuk oda.

20.- Koadro orokorrak hurrengo edukiko du:

Intentsitate beheratzaile bat

SGC modulu bat.

Erloju astronomiko bat.

Telefonia txartelarentzako modema.

21.- Argiteriaren kableak kobrezkoak izango dira.

22.- Argiteria publikoaren zirkuituak/lerroak zehaztea, farolen txandakako pizketa gaitzeko nahiko faseekin diseinatuz.

Energia elektriko sarea

23.- Energia elektriko sarearen diseinua zuzendu beharko da, planoetan zehaztutakoa eta proiektuari erantsitako azterketa elektrikoaren aurreikuspenak bateratzeko.

Hiri altzariak

24.- Proiektuan aurreikusitako 50km/ordu-ko abiadura-mugako seinaleak, 30km/ordu-ko abiadura-mugako seinaleez aldatuko dira.

25.- Kanpandegiko bidegurutzetako irteeraren "utzi pasatzen" bat kentzea.

26.- Oinezkoen pasabideak altxatutakoak egitea, udaletxeko zerbitzu teknikoaren zehaztapenen arabera.

27.- Mendebaldeko errepidearen gerontologiko alderako irteeran "stop" bat jartzea.

28.- Proiektuaren barnean ez dauden lurzati pribatuenei txitura/hesiak zehaztea.

29.- Urbanizazio Proiektuan, erdiko lorategiaren eremuan iturri bat sartzea.

30.- Jarriko diren bankuak, Fundiciones Benito etxearen Delta 21 modelokoak izango dira.

31.- Jarriko diren zakarrontziak, Fundiciones Benito etxearen Circular modelokoak izango dira.

32.- Biribila egiten den arte, biribilaren lehenengo irla kentzea planteatzen da.

Lorazaintza

33.- Prunus cerasifera Pissardi-ak Acer Palmatum rojo edo Acer Platanoides Krimson King-en ordeztu aldatzea, Prunus-aren fruituak gune zikin eta irristagarriak sortu ditzakeelako.

IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:



Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 11-11-004 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea, astean bi egunean eta eguneko 2 ordu. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %35a izango da.

Drogomenpekotasunak, garraiorako laguntzak.-

- 11-14-001 zbk.dun esped.: garraiorako dirulaguntza handitzea, hilean 50€ emanez.

Orobione Jubilatu eta Pentsiodun Elkarteari dirulaguntza.-

Orobione Jubilatu eta Pentsiodunen elkarteari 7.576,12 € ematea 2011 urteko ekintzen garaperako eta 75 € ematea Hitzaren harpidetzarako.

Elbarrituen garraioa.-

Ordiziako Gureak tailerrerako garraioa ordaintzeko 2011. urterako 391,25 €ko dirulaguntza ematea ondorengo pertsoneri:

- 11-17-01 esp. zbk.dunari.
- 11-17-02 esp. zbk.dunari.

Entitateei dirulaguntzak.-

Honako dirulaguntzak ematea entitateei 2011. urtean:

| | |
|-------------------|---------|
| - Odol emaileak | 1.317 € |
| - Gurutze Gorria | 3.510 € |
| - Gizakia Helburu | 1.115 € |

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta hamar direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

